

LANSAREAN.EUS BERRIA

Euskaraz lan egin nahi duten langile eta enpresei bidea erraztea du xede atariak

 **LANA /** Maider Iantzi Goienetxe

Gero eta gehiago dira euskaraz ikasten duten lagunak, belaunaldi berriak prest daude bizitza profesionala euskaraz egiteko; aukera gutxi dute horretarako, ordea. Horretan eragin nahian ari da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea, lan bila ari direnen eta enpresen esku jarritz Lansarean.eus euskara hutsezko lan-atari berri eta funtzionala.

Euskara hutsezko lan-atari bakarra da Lansarean.eus. Bi publikori dago zuzenduta: alde bate-tik, enpresa, saltoki eta era guztietako entitateei, lan eskaintzak zabaldu eta hautake-ta prozesuak errazago kudea di-tzaten. Bertzetik, lan bila ari di-ren pertsonen, euskarazko eskaintzak era pertsonalizatuan jaso eta eurentzat egokiena den postua topa dezaten.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea kudeatzen du, Bilala-nekin elkarlanean. Duela bi urte sortu zuten erreminta hau, eta lana euskaraz bilatu, eskaini, eta hizkuntza honetan lan egin nahi duen komunitatearen esku jarri zuten. “Lehen aukera eus-kara, lan aukera euskaraz” lelo-tzat hartuta, lan mundua eus-kalduntzen ahalegintzen dira.

Bi urteko ibilbidea bete du Lansarean.eus atariak eta, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-teko zuzendari Rober Gutierrezek GAUR8ri azaldu dionez, kontent daude lortu dutenarekin. «Oso bitarteko mugatuekin tresna oso erabilgarri bat sortu dugu». Horren erakusgarri dira susta-pen kanpainako bideoan ager-tzen diren lekukotasunak.

ERABILTZAILEEN ESPERIENTZIAK

Maiatzaren 2an, justu Langileen Nazioarteko Egunaren bihara-munean, atari berriua aurkeztu zuten, komunikazio kanpaina batekin batera. Webgunearen aro berria hasteko, erabiltzaile-en iritzi eta esperientziak jaso dituzte. Ikerlan, Oreaka IT, Kide Aholkularitza, Berria Euskaraz-

ko Komunikazio Taldea eta Arte-man Komunikazioa dira erabil-tzaile esanguratsu batzuk.

Azken horretako zuzendaria, Arantzazu Lagunilla, hala min-tzatu zaigu: «Artemanen helbu-ruetako bat da pertsonen gara-pena eta lanpostuen sustapena. Gure lantaldea profil oso ezber-dineko pertsonen osaturik dago, komunikazio esparru ezberdi-netan adituak garen pertsonen; batzuek eskarmentu gehiago, beste batzuek gutxiago... baina guztion indar, ilusio eta ezagu-tzak batuz Arteman Komunika-zioa posible egiten dugu».

Aitortu duenez, pertsona ber-riak hartzeko eta talentua era-kartzeko prozesua ez da erraza izaten, Artemanen koloreekin eta lantaldearekin identifikatu-ko den pertsona bat bilatzen du-telako, prestatua, prestua, eus-kalduna eta beren filosofiarekin eta lan egiteko moduarekin bat egin dezakeena.

«Azken batean, komunikazio artisauak gara eta halako bat to-patzea ez da bi eguneko kontua. Lan eskaintzak izan ditugunean zoratu egin gara behin baino gehiagotan: nora jo? Zein tres-naren bidez kudeatu lan eskain-tzok? Non aurkitu gure baloree-kin bat egingo duen pertsona?».

Lansarean.eus ezin hurbilago-tik ezagutu zuten, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen ko-munikazio bidelagunak baitira. Ordutik, hautaketa prozesuen kudeaketarako lehenengo auke-ra da.

«Lansareanek profil ezberdi-netako curriculumak ahalbidetu dizkigu eta pertsona oso inte-resgarri eta kualifikatuak aurki-



Goian, Arantzazu Lagunilla
Arteman Komunikazioko
zuzendaria eta Lansarean
atariaren erabiltzailea.
Lerroon ondoan, Rober
Gutierrez Bai Euskarari
Ziurtagiriaren Elkarteko
zuzendaria.

LANSAREAN.EUS - Juan Carlos RUIZ |
ARGAZKI PRESS





tu ditugu webgunearen bidez. Gainera, orain, funtzionalitate berriekin eta diseinu egunera-tuarekin, askoz intuitiboagoa da eta eskaintzak modu pertsonali-zatuagoan kudeatzeko aukera ematen digu, hautaketa proze-sua erraztuz eta eraginkorrago eginez», jarraitu du azaltzen.

Giza baliabideen alorra «oso konplexua» da eta faktore uga-rik eragiten du. «Inportanteena konfiantzazko pertsonak inte-gratzea da, eta guk jakin badaki-gu horiek Lansareanen bidez aurki ditzakegula», nabarmen-du du Lagunillak.

FUNTZIONAMENDUA

Atariak nola funtzionatzen duen esplikatu digu Gutierre-zek: lehenbizi izena eman behar da hautagai edo enpresa gisa. Lan bila sartzen bagara, panel bat ikusiko dugu gure profila betetzeko. Curriculumuma presta dezakegu bertan; bat baino gehiago osa ditzakegu, postu ba-koitzari egokituz. Lan eskain-tzen alertak jasotzeko aukera ere badugu, interesatzen zaizki-gun arloetakoak, edo inguru ze-hatz batekoak. Enpresen eskain-tza guztiak ikus ditzakegu eta, baten bat interesatuz gero, izena eman eta berarekin harremanetan jarri. Abisuak jasoko ditugu enpresa horrek curriculumuma ja-so duen erranez, irakurri duen ala ez, hautaketa prozesuan zein fasetan gauden...

Enpresa gisa sartzen bagara, lan eskaintzen berri eman deza-kegu eta eskaintzak ataritik ber-tatik kudeatu. Datuen ustiaketa egin dezakegu eta hautagaiei ja-kinarazi onartuak dauden ala hurrengo fasera pasatu diren. Eurekin kontaktuan jar gaitezke.

Atal gehiago ere baditu web-guneak, lanbide orientazioari eskainitakoa kasu. Bertan jaso-tzen dira ibilbide profesionale-an lagun gaitzaketen hainbat aholku eta orientabide: curricu-lumak nola prestatu, lan elka-rrizketak nola egin... Formakun-tza ikastaroen atal bat ere prestatzen ari dira, euskaraz es-kaintzen diren kurtsoen berri emateko.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak jakinara-

info+

Euskara hutsezko lan-atari bakarra sustatzeko

kanpainaren spota:

<https://youtu.be/C7kXd>

ReGgG8

zi duenez, hagitz gutxi dira Eus-kal Herrian euskaraz lan egiten duten enpresak. 1.242 entitatek dute ziurtagiria, eta Araba, Biz-kai eta Gipuzkoan 250 inguruk dituzte euskara planak.

Euskaraz mintzatzen diren enpresa hauek erabiltzen dute Lansarean, baita, bertze hizkun-tza batzuetan lan eginda ere, es-kaintza zehatzen baterako profil euskalduna nahi dutenek. «Nor-malean ez dira oso enpresa han-diak izaten. Zerbitzuekin lotuta daude gehienak eta aholkulari-tzakoak ere badira. Hautagaiei dagokienez, gazteak dira. Ikaske-tak euskaraz egin dituzte eta etorkizun profesionala ere hala garatu nahi dute».

Gutierrezek eten batez oharta-razi du: «Izugarrizko inbertsioa egin da hezkuntzan, umeak eta gazteak euskaraz formatzen ari gara, baina gero lan mundura jauzi egiten dutenean oso gutxi izaten dira beren bizitza profe-sionala euskaraz garatzeko au-kera dutenak». Zuzendariaren ustez, ikuspegi orokorragoa be-har da eta inbertsio handiagoa ere bai euskarak arlo sozioeko-nomikoan lekua irabazteko.

ELKARLANERAKO DEIA

«Merkatu globalizatu honetan hizkuntza ezberdinetan lan egi-ten da. Posible da ondoan ditu-dan lankideekin euskaraz ari-tzea baina gero beste nonbait dagoen lankide batekin beste hizkuntza batean egitea. Duela oso gutxira arte ez da behar be-zala kudeatu hori. Pixkanaka-pixkanaka ari dira urratsak egi-ten, baina oso pixkanaka», agertu du Gutierrezek.

Benetako jauzi kualitatibo-kuantitatibo baten premia ikus-ten du, eta elkarlanerako deia egin die arlo sozioekonomikoko eragile guztiei: enpresak, admi-nistrazioak, langileak... «Oina-rrizkoa da gure arteko elkarri-zketak bideratzea, planak egitea, neurriak hartzea eta epeak ze-haztea emaitzak lortzeko. Beste-la gauzak egin egiten ditugu, baina horien eragina nahiko mugatua izaten da». Euskarak lan munduan duen egoeraren inguruko argazkia partekatzero gonbidatu ditu.

2.011

hautagai eta 269 enpresa daude momentu honetan Lansarean.eus atarian izena emanda. Bi urteko ibilbidean 3.000 eskaintzatik gora zabaldu dira tresna honen bidez.

1.242

enpresa dira Bai Euskarari Ziurtagiriaren jabe. Horietatik 535ek oinarritzko maila dute eta 700 baino gehiago gai dira zerbitzuak euskaraz eman eta euskaraz lan egiteko.